

TOLOSALDEA / Haurren artean irakurzaletasuna bultzatzeko eguna da gaur

Tolosan, Bidegoianen, Berrobin, Areson eta Leitzan eguna ospatzeko ekitaldiak antolatu dituzte.

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna da gaurkoa. 1965. urtetik ospatzen da eta Hans Christian Andersen idazlearen jaiotza eguna delako aukeratu zuten, hain zuzen, apirilaren 2a izendatzea Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna bezala.

Eguna IBBY elkarteak (International Board on Books for Young People) bultzatzen du eta urtero herrialde batek mundu guztian zehar barreiatzen den mezua eta kartela egiteko ardura izaten du. Aurten Egiptoko txanda izan da eta Hani D. El-Masrik izan du kartela eta mezua egiteko ardura. Egiptoarrak ' Ni naiz mundua ' leloa aukeratu du eta horrela dio mezuaeren hasierak: Ni naiz mundua, eta mundua ni naiz, zer nahi huraxe bainaiz, neure liburuaren bidez. Hitzek eta irudiek, hitz lauz edo bersotan, gertura naramate, eta urrun aldi berean.

Ekitaldiak hainbat herritan

Eskualdeko hainbat herritako liburutegitan ere ospatuko dute gaurko eguna; Tolosan, Berrobin, Bidegoianen, Areson eta Leitzan, hain zuzen ere. Argitu behar da, hala ere, Bidegoianen atzo arratsaldean ospatu zutela eguna gurasoek umeei irakurketa eginaz.

Berrobin gaur 12:00etan herriko eskolako umeak liburutegira joango dira eta beraien arteko irakurketa egingo dute. Bi ekitaldi hauek Galtzagorri Euskal Haur eta Gazte Literatura Elkarteak antolatutakoak dira eta euren originaltasuna dela-eta saria ere jaso du, Bidegoianek bezala.

Tolosan gaurko egunean liburuak maileguan hartzen duten gazteek piruleta bat jasoko dute eta Hans Kankailu ipuinari buruzko erakusketa ere inauguratuko dute. Erakusketa ipuina landu duteneko ikastetxe desberdinetako umeek egindako marrazkiekin osatu dute eta hilaren 23ra arte, Liburuaren Nazioarteko Eguna arte, egongo da zabalik haur liburutegian. Marrazkiak egin dituzten ume guztien artean, gainera, liburuak zozketatuko dituzte. Gaur eta bihar bost urteko haurrei eskolako bisita gidatuak ere egingo dituzte. Era berean, Zarautzeko Miriam Mendoza ipuin kontalariak liburutegiak antolatu ohi duen Ipuin Txokoaren barruan saioa eskainiko du gaur 18:00etan. Saioa 3 eta 6 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago.

Leitzan, bere aldetik, Galtzagorri IBBYrekin batera antolatutako ekitaldiak izango dituzte urtero egin ohi duten moduan. 12:00etan herriko liburutegian Ana Meabe ipuin-kontalariaren saioa izango da eta Leitzako zein Aresoko eskoletako lehen zikloko umeek, gainera, IBBYren aurtengo ipuina zein kartela landuko dituzte.